**Euskal Moneta - Rapport financier pour l'année 2023**

*Cette note est pensée comme une information globale sur l'exercice financier à communiquer aux adhérent.es préalablement à l'AG. Bien entendu, le bilan financier fera l'objet d'une présentation détaillée en séance le samedi 1er juin prochain et toutes les questions pourront être posées avant de soumettre ce bilan au vote.*

Vous trouverez ci-dessous une synthèse financière de l'exercice 2023.

**Résultats financiers :**

Pour l'exercice clos au 31/12/2023, nos recettes totales s'élèvent à 575 796€. Ces revenus proviennent principalement des cotisations des divers membres et des subventions, répartis comme suit :

- Cotisations des adhérents particuliers : 92 645€
- Cotisations des adhérents professionnels : 148 390€
- Cotisations des adhérents collectivités : 38 181€
- Subventions : 24 917€
- Commissions 5% : 93 886€

Nos dépenses totales pour l'année sont de 554 158 €, englobant les coûts opérationnels, les frais administratifs et les dépenses de projet. Voici la répartition des principales dépenses :

- Masse salariale : 279 828€
- Honoraires (conseil, formations, expert-comptable et CAC) : 51 768€
- Dons 3% versés aux associations : 72 486€
- Dépenses courantes de l'association (assurance, déplacements, etc.) : 27 499€

**Bénéfice :**

Après déduction de toutes les dépenses, nous avons réalisé un bénéfice net de 21 638€. Ce résultat positif témoigne de notre gestion rigoureuse et de notre capacité à équilibrer les recettes et les dépenses.

**Bilan :**

Au 31/12/2023, le total bilan s'élève à 4 525 488€.

Nos actifs comprennent principalement :

- Immobilisations : 429 783€
- Comptes dédiés correspondants aux eusko en circulation : 3,9 M€

Nos passifs incluent principalement :

- Dettes à court terme : 26 657€ (dettes sociales, fiscales et fournisseurs)
- Emprunts : 364 804€
- Eusko en circulation : 3,9 M€

**Projets et perspectives :**

Il sera proposé à l'AG que les fonds excédentaires soient réinvestis dans nos projets futurs liés à la réalisation du plan stratégique voté en AG en 2023.

**Conclusion :**

En conclusion, l'année 2023 a été marquée par une gestion financière rigoureuse qui nous permet de regarder l'avenir avec confiance. Il convient de remercier et féliciter l'équipe salariée, les bénévoles, les membres et partenaires pour leur soutien continu.

**Euskal Moneta - 2023 urterako finantza txostena**

*Ohar hau pentsatua da Biltzar Nagusia aitzin, joan den urteko bilan ekonomikoaren informazio esanguratsuenak emateko kideei. Noski, diru bilana datorren ekainaren 1eko biltzarrean aurkeztuko da xeheki, eta galdera guziak egingo dira bilan hori bozketara eraman aitzin.*

Ondoren, 2023 urteko finantza sintesi bat aurkituko duzue.

**Finantza emaitzak:**

2023/12/31n bukatua den urteari dagokionez, gure diru sarrerak 575.796 €-koak izan dira. Diru sarrera horiek, nagusiki, kide ezberdinen ekarpenetatik eta dirulaguntzetatik datoz, honela banatuak:

- Kide partikularren kuotak: 92 645 €
- Kide profesionalen kuotak: 148 390 €
- Entitate publikoen kuotak: 38 181 €
- Diru laguntzak: 24 917 €
- % 5eko komisioak: 93 886 €

Gure urte osoko gastuak 554.158 €-koak dira, gastu operatiboak, gastu administratiboak eta proiektu gastuak barne. Hona hemen gastu nagusien banaketa:

- Soldata masa: 279 828 €
- Ordainsariak (aholkularitza, formakuntzak, kontularia eta CAC delakoa): 51 768 €
- % 3ko dohaintzak elkarteei: 72 486 €
- Elkartearen gastu arruntak (asegurantza, bide gastuak, etab.): 27 499 €

**Irabazia:**

Gastu guziak kondutan harturik, 21 638 €-ko irabazi garbia ukan dugu. Emaitza positibo horrek erakusten du gure kudeaketa zorrotza eta diru sarrerak eta gastuak orekatzeko gaitasuna.

**Bilana:**

2023/12/31n, bilana 4.525.488 €-koa da.

Gure aktiboen artean, nagusiki:

- Imobilizazioak: 429 783 €
- Eusko zirkulazioari dagozkion kontuak: 3,9 M €

Gure pasiboak nagusiki hauek dira:

- Epe laburreko zorrak: 26 657 € (zor sozialak, fiskalak eta hornitzaileak)
- Maileguak: 364 804 €
- Eusko zirkulazioan: 3,9 M €

**Proiektuak eta perspektibak:**

BNri proposatua izanen zaio irabaziak berriz inbertituak izan daitezen, 2023ko BNn bozkatua izan den plan estrategikoaren gauzatzeari lotuak diren egitasmoetan.

**Ondorioa:**

Laburbilduz, 2023. urtea finantza kudeaketa zorrotz batek markatu du, etorkizunari konfiantzaz begiratzeko aukera ematen diguna. Eskertzekoa eta zoriontzekoa da langile taldea, laguntzaileak, kideak eta partaideak, haien laguntzagatik.

## Euskal Moneta – Monnaie locale du Pays Basque
## Rapport moral 2023

L’année 2023 aura d’abord été l’année des 10 ans de l’Eusko, puisque la monnaie locale du Pays Basque fut lancée le 31 janvier 2013. Nous avons particulièrement célébré ces 10 ans le samedi 15 avril à Espelette lors de l’Eusko Eguna. Malgré un temps un peu froid et pluvieux qui nous a obligés à annuler certaines des animations prévues, cette première édition d’un Eusko Eguna renouvelé a été une réussite en journée et la formule proposée a eu du succès : une grande fête populaire avec des animations tous publics et particulièrement pour les enfants, un brunch paysan et des pintxo de grande qualité, le marché de producteurs, la conférence, les jeux traditionnels basques, etc. Les concerts du soir, par contre, n’ont pas attiré le public escompté, mais dans l’ensemble l’événement s’est terminé à l’équilibre au niveau financier, ce qui est satisfaisant. Nous souhaitons continuer à organiser l’Eusko Eguna à Espelette pendant plusieurs années, ce qui nous permettra d’acquérir de l’expérience et de ne pas tout recommencer à zéro à chaque édition, dans le but de faire de cette journée une des fêtes importantes du calendrier déjà bien fourni des fêtes et événements du Pays Basque.

S’il faut retenir une autre date de cette année 2023, c’est celle du 11 mai : ce jour-là, l’Autorité de contrôle prudentiel et de résolution (ACPR) a définitivement validé l’exemption d’agrément en qualité d’établissement de paiement de notre association, donnant ainsi enfin un cadre juridique clair à l’Eusko numérique (l’Eusko billet faisant l’objet d’une réglementation différente). Cette décision majeure, une première en France pour une monnaie locale circulant à la fois sous forme de coupons-billets et sous forme numérique, est l’aboutissement d’un long processus entamé dès 2015 avec le dépôt de deux dossiers en 2015 et 2016, puis une mise en sommeil du fait de l’évolution du cadre juridique, et une reprise des échanges en septembre 2020 après que l’Eusko numérique ait dépassé le seuil d’un million d’eusko de transactions sur 12 mois.

Au cours de l’année 2023, nous avons aussi poursuivi le travail de réflexion stratégique entamé lors du séminaire d’octobre 2022 pour aboutir à la définition des grands axes de notre plan stratégique pour les années à venir, axes qui ont été présentés lors de

## Euskal Moneta – Euskal Herriko tokiko moneta
## 2023 txosten morala

Lehen lehenik, 2023a Euskoaren 10. urteurrena izan da, Euskal Herriko tokiko moneta 2013ko urtarrilaren 31n abiatua baitzen. 10 urte hauek ospatu genituen apirilaren 15ean, larunbatarekin, Ezpeletan antolatu genuen Eusko Egunean. Nahiz eta eguraldi hotz eta euritsua izan, Eusko Eguna berritu baten lehen edizio hau arrakastatsua izan da egunean zehar. Izan ere, proposatutako formulak arrakasta izan zuen: besta herrikoi handi bat, publiko guztiei zuzendutako animazioekin eta bereziki haurrentzat, laborari *brunch* bat eta kalitate handiko pintxoak, ekoizleen merkatua, mintzaldia, euskal joko tradizionalak, etab. Gaueko kontzertuek, aldiz, ez dute espero zen publikoa erakarri, baina, oro har, ekitaldia diru mailan orekaturik bukatu zen, eta hori pozgarria da. Eusko Eguna Ezpeletan antolatzen segitu nahi dugu hainbat urtez, eta horri esker esperientzia hartuko dugu ez baita zerotik hasiko edizio bakoitzean. Egun hori Euskal Herriko pesta eta ekitaldien egutegiko hitzordu garrantzitsuenetako bat izan dadin.

2023 urte honetako beste data bat atxiki behar bada, maiatzaren 11koa da: egun horretan, *Autorité de contrôle prudentiel et de résolution* (ACPR) egiturak behin betiko baliozkotu zuen gure elkarteak ordainketa egitura gisa orain arte salbuespen moduan zuen onespena. Ondorioz, lege kuadro argi bat eman zion Eusko numerikoari (Eusko billeteak beste araudi baten pean dira). Erabaki nagusi hori, lehen aldikotz onartua zaio Frantzian, bai billete bai numerikoan ibiltzen den tokiko moneta bati. 2015ean hasi prozesu luze baten bururatzea da, 2015ean eta 2016an bi txosten aurkeztu genituen, ondotik, lege-kuadroaren aldaketa batzuengatik dosierra ez zen aitzinatu, eta trukaketak berriz abiatu ziren 2020ko irailean, Eusko numerikoak 12 hilabetetan milioi bat eusko trukaketen muga gainditu ondoren.

2023. urtean, 2022ko urriko mintegian hasitako gogoeta estrategikoaren lanari ere jarraipena eman genion, heldu diren urteetarako gure plan estrategikoaren ardatz nagusien definitzeko. Ardatz

l'Assemblée Générale du 10 juin 2023. Bien que le travail de déclinaison de ce plan stratégique en plan d'actions n'ait pas encore été complètement réalisé, nous avons avancé sur deux sujets majeurs. D'une part, le Comité d'agrément a souhaité renforcer le défi sur l'utilisation des produits locaux et il a élaboré une proposition d'un défi plus ambitieux pour les restaurateurs, les artisans ainsi que les épiceries, proposition qui a été validée par le Comité des collèges. D'autre part, nous avons lancé une réflexion à propos des professionnels qui n'arrivent pas à réutiliser tous leurs eusko malgré leurs efforts, et mis en place un groupe dédié chargé de faire des propositions à ce sujet.

Concernant la langue basque, nous avons poursuivi notre travail sur l'affichage bilingue dans les commerces du réseau, avec le soutien de l'OPLB, et avons entamé avec l'aide de Plazara une réflexion sur la place de l'euskara dans notre projet.

L'usage de l'eusko a continué à se développer, ce qui se traduit notamment par le montant en constante augmentation des dons distribués aux associations via le mécanisme du don 3 % Eusko : le samedi 14 octobre 2023, à l'occasion de l'Eusko Elkarteen Eguna, près de 70 000 eusko de dons ont été distribués à 44 associations. Cette journée s'installe au fur et à mesure des années comme un rendez-vous important pour les responsables associatifs du territoire, qui y trouvent des informations utiles pour développer les dons ou le mécénat au bénéfice de leurs associations.

Le lien au territoire, à son tissu associatif et aux alternatives qui s'y développent fait partie intégrante, depuis ses débuts, de l'ADN de l'Eusko. En 2023, nous avons décidé de participer à la création, en souscrivant des parts, des sociétés coopératives d'intérêt collectif (SCIC) Mediabask et Patxa'ma, ainsi qu'à la création du fonds de dotation Eraiki, en devenant membre de son collège des alliés. Nous avons aussi continué notre travail en partenariat avec Pays Basque au Cœur pour le développement de nos projets respectifs dans les zones que nous avons en commun, et nous avons répondu à la sollicitation de l'association Hemen, qui a fait une contribution à notre réflexion stratégique et nous a proposé de nous accompagner. Enfin, nous avons décidé de nous impliquer plus fortement dans l'organisme de formation Bihar, avec une membre du comité de pilotage représentant l'Eusko au sein du comité pédagogique de Bihar, et trois membres du comité de pilotage participant au conseil d'administration de Bihar, au lieu d'un jusque là.

horiek 2023ko ekainaren 10eko Biltzar Nagusian aurkeztu ziren. Plan estrategiko horren deklinabide-lana oraindik guztiz gauzatu ez bada ere, bi gai nagusitan egin ditugu urratsak aitzinera. Alde batetik, Onespen Batzordeak tokiko produktuen erabilpenari buruzko erronka indartu nahi izan du, eta desafio anbiziotsuago baten proposamen bat egin du, ostalari ofiziale baita janari dendentzat ere. Bestalde, gogoeta bat abiatu dugu beren eusko guziak berrerabiltzera heltzen ez diren profesionalei buruz, eginahalak eginagatik ere, eta horri buruzko proposamenak egiteaz arduratzen den talde bat sortu dugu.

Euskarari dagokionez, sareko dendetan, EEPren laguntzarekin, gure lanean segitu dugu, eta Plazara elkartearen laguntzarekin, euskarak gure proiektuan duen lekuari buruzko gogoeta hasi dugu.

Euskoaren erabilera garatzen joan da beti, batez ere % 3ko Eusko dohaintzaren mekanismoaren bidez elkarteei banatzen zaizkien dohaintzak emendatuz: 2023ko urriaren 14an, Eusko Elkarteen Egunaren karietara, 70 000 eusko inguru banatu ziren 44 elkarteren artean. Egun hau, lurraldeko elkarte arduradunendako hitzordu garrantzitsua bilakatu da, eta informazio baliagarria aurkitzen dute bertan, dohaintzak edo mezenasgoa garatzeko, beren elkarteen mesedetan.

Lurraldearekiko, bere elkarte sarearekiko eta bertan garatzen diren alternatibekiko lotura, hastapenetik, Euskoaren DNAren parte da. 2023an, Mediabask eta Patxa 'ma interes kolektiboko kooperatiba-sozietateen (SCIC) sortzean parte hartzea deliberatu genuen, partaidetzak izenpetuz, bai eta Eraiki fondoaren sortzean ere, bere laguntzaileen kolegioko kide bilakatuz. Halaber, Pays Basque Au cœur egiturarekin elkarlanean segitu dugu, gure proiektuak elkarrekin garatzeko, eta Hemen elkartearen proposamenari erantzun diogu, gure gogoeta estrategikoari ekarpen bat egin dutelarik. Azkenik, Bihar formakuntza erakundean indar handiagoz parte hartzea deliberatu dugu, Euskoko Gidaritza batzordeko kide sartuz ordezkari gisa Biharko pedagogia batzordean, eta Biharko administrazio kontseiluan hiru kide sartuz, orain arte bakar bat zeudelarik.

A leur demande, nous avons travaillé avec la société Transdev, qui candidatait à l'appel d'offres du Syndicat des mobilités pour le réseau Txik Txak et qui voulait proposer l'eusko comme moyen de paiement. Transdev n'a pas été retenue mais nous encourageons vivement les élus à demander à l'opérateur choisi de mettre en œuvre un plan pluriannuel d'utilisation progressive de l'eusko comme moyen de paiement dans l'ensemble des points de vente du réseau de transport Txik Txak. Cela permettrait d'inscrire de façon plus large l'utilisation de la monnaie locale dans le quotidien de la population et favoriserait un changement d'échelle bénéfique pour le territoire et ses habitants.

En interne, l'année 2023 a commencé avec la validation en janvier puis la mise en place d'une nouvelle grille des salaires, après un travail d'élaboration mené par le comité de pilotage et par une commission mixte comité de pilotage – salariés. La mise en place de cette nouvelle grille des salaires répond à une attente forte des salariés et a permis de faire disparaître les tensions à ce sujet.
Quelques changements ont eu lieu dans l'équipe salariée : Maia Martinon est partie en début d'année et a été remplacée à son poste d'assistante administrative par Elodie Martinez ; et Amandine Artano-Garmendia a quitté son poste de chargée de développement en fin d'année. Elle n'a pas été remplacée pour l'instant car nous avons décidé de ne pas maintenir ce poste mais de créer un poste d'animateur territorial ayant pour mission de développer l'eusko sur une zone donnée, en lien avec tous les adhérents de cette zone (particuliers, entreprises, associations, collectivités, etc.). Il s'agit d'une idée que nous avions déjà travaillée mais que nous n'avions pas mise en œuvre jusque maintenant.
Enfin, nous avons préparé le recrutement d'un coordinateur ou d'une coordinatrice, indispensable au bon fonctionnement de l'équipe salariée et de la structure. En effet, depuis le départ du directeur général Dante Edme-Sanjurjo, nous avons fonctionné avec une instance de coordination réunissant tous les quinze jours les responsables d'équipe et des membres du comité de pilotage, mais c'est un fonctionnement en mode dégradé qui n'avait pas vocation à durer. Le comité de pilotage a réfléchi à une nouvelle organisation et défini la fiche de poste du coordinateur. Le recrutement a été lancé en fin d'année et a abouti début 2024.

Pour terminer, nous avons avancé sur deux projets stratégiques pour l'avenir de l'Eusko, et dont nous reparlerons dans les mois et années à venir :

Haiek galdeginik, Transdev enpresarekin lan egin dugu, Txik Txak sarearentzat Mugikortasunen Sindikatuak luzatutako deialdi publikoari erantzuteko txostenean, enpresak nahi izan du Euskoa integratzea ordainketa moldeetan. Transdev ez da hautatua izan, baina hautetsiak animatzen ditugu urte anitzetako plan baten lantzeko Euskoa integratzeko proposatzen dituzten ordainketa moldeetan. Horri esker, tokiko monetaren erabilera modu zabalagoan sartuko litzateke herritarren egunerokoan, eta eskala aldaketa bat bultzatuko luke, lurraldearentzat eta bertako biztanleentzat onuragarria izanen dena dudarik gabe.

Barne mailan, 2023 urtea hasi da soldaten sistema berri baten plantan ezartzearekin, gidaritza batzordeak eta batzorde misto baten lanaren ondotik (langileak eta gidaritza batzordeko kideez osatua). Soldaten sistema berri honen plantan ezartzeak langileen igurikapen handi bati erantzuten dio eta horri buruzko tirabirak desagertaraztea ahalbidetu du.
Aldaketa batzuk gertatu dira langileen taldean: Maia Martinon urte hastapenean joan da eta Elodie Martinezek ordezkatu du bere administrazio laguntzaile postuan ; eta Amandine Artano-Garmendiak bere garapen kargudun postua utzi du urte hondarrean. Oraingoz ez da ordezkatua izan, lanpostu hori ez atxikitzea deliberatu baitugu. Horren ordez lurralde animatzaile postu baten sortzea deliberatu dugu, eremu jakin batean, eremu horretako kide guzien arteko lotura egiteko (partikularrak, enpresak, elkarteak, instituzioak, etab.). Ideia hori jadanik landua genuen, baina orain arte ez ginuen gauzatu.
Azkenik, koordinatzaile baten kontratatzea erabaki dugu, ezinbestekoa langile taldearen eta egituraren funtzionamendu onerako. Izan ere, Dante Edme-Sanjurjo zuzendari nagusia joan zenetik, hilabetean bi aldiz biltzen genintuen poloetako arduradunak eta gidaritza batzordeko erreferenteak. Koordinazio instantzia horrekin funtzionatu dugu, baina behin behineko ibilmolde zen, irauteko asmorik ez zuena. Gidaritza batzordeak antolaketa berri bati buruzko gogoeta egin du eta koordinatzailearen postu fitxa zehaztu du. Deialdia urte hondarrean abiatua izan da eta 2024 hastapenean bukatu da.

Bukatzeko, Euskoaren etorkizunerako estrategikoak diren bi proiektu aitzinatu ditugu, datozen hilabete eta urteetan berriz aipatuko ditugunak:

- Berme funtsaren inbertsio proiektua alde batetik: Euskal Elkargoak manatu azterketa

| | |
|---|---|
| • le projet d'investissement du fonds de garantie d'une part : suite à l'étude juridique commandée par la CAPB, nous avons commencé la recherche des partenaires pour réaliser ce projet ; nous avons par ailleurs associé le Mouvement SOL à cette démarche, ce qui facilitera la participation d'acteurs nationaux français de l'ESS au futur dispositif, l'Eusko en étant la monnaie locale pilote<br>• le projet Eusko Barter : après la présentation des résultats du projet de recherche-action en juillet à Bayonne à l'occasion des sessions universitaires transfrontalières, nous avons lancé avec la coopérative Olatukoop, la mairie du Baztan et son agence de développement Cederna Garalur le projet « Gizartearen Moneta », consortium de coopération monétaire transfrontalière ; après une demande de subvention à l'Eurorégion pour laquelle notre projet n'a pas été retenu, nous avons décidé de poursuivre le projet avec des demandes de subvention à réaliser par chacun des trois partenaires sur son territoire ; l'objectif de ce projet est d'évaluer le potentiel de coopération monétaire transfrontalière entre le Pays Basque Nord, le Baztan et une zone du Gipuzkoa. | juridikoaren ondotik, partaideen bilaketari ekin diogu proiektu horren gauzatzeko; bestalde, SOL mugimenduak bat egin du egitasmo horrekin, eta horrek erraztuko du ESSko eragile nazional frantsesen parte hartzea etorkizuneko dispositiboan, Euskoa izanik tokiko moneta pilotua<br>● Eusko Barter proiektua: joan den uztailean Baionan iragan ziren mugaz gaindiko jardunaldietan, ikerketa lanen emaitzak aurkeztu ziren. Geroztik, Olatukoop kooperatibarekin, Baztango herriko etxearen eta bere garapen agentzia den Cederna Garalurrekin "Gizartearen Moneta" proiektua abian jarri dugu, mugaz gaindiko diru lankidetzako partzuergoa. Euroeskualdeari dirulaguntza eskaera bat egin eta gero, gure proiektua ez baitzen hautatua izan, hiru egiturek, bakoitzak bere lurraldean, dirulaguntza eskaerekin segitzea deliberatu dugu; proiektu honen xedea da Ipar Euskal Herriaren, Baztanen eta Gipuzkoako eremu baten arteko mugaz gaindiko diru lankidetza ahalmena ebaluatzea. |